

1. XEDEA

Prestazio honen helburua da [Nordic Klinika](#)ren, Laneko Osasun eta Ongizate zerbitzuaren, tratamendua amaitu izana justifikatzen duten 65 urtera arteko (65ak barne) titular eta onuradunentzat laguntza ekonomikoa. Zerbitzu honen helburua nahasmendu muskuloeskeletikoak prebenitzea edo hobetzea da (bizkarreko minak, zerbikaletakoak, sorbaldetakoak, aldaketakoak edo belaunetakoak).

2. DESKRIBAPENA

200€ arteko prestazioa da, Nordic Klinika izeneko Laneko Osasun eta Ongizate zerbitzu berriaren tratamendu-gastua ordaintzen laguntzeko.

3. BALDINTZAK

Eskaera	BEHARREZKOA
Nork eska dezake laguntza	Titularrek.
Nork jaso dezake laguntza	<p>Nordic Klinika tratamendua amaitu izana justifikatzen duten 65 urte arteko (65ak barne) titular eta onuradunentzat. Baldintza hauekin eskatu ahal izango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laguntza lehenengo tratamendu osoa amaitu ondoren eska daiteke. • Ondoren, lehenengo tratamendu osotik bi urte igarotakoan eskatu ahal izango da. • Ezinbestekoa izango da Nordic Klinikak emandako ziurtagiri bat aurkeztea, tratamendua amaitu dela adierazten duena. <p>Prestazioa eskatu ahal izateko, La Fundacióneko titularra izan beharko da prestazioa eskatzeko unean.</p>
Antzintasuna	9 hilabete, prestazioa eskatzen den egunean.

Familia-unitatean titular bakarra badago, urtean prestazio bakarra eskatu ahal izango da kontzeptu horregatik.

Familia-unitate berean titular bat baino gehiago badago, bi titularrek eskatu ahal izango dute laguntza, baldin eta biek betetzen badituzte adierazitako baldintzak eta tratamendua pertsona desberdinentzat bada.

4. EPEAK

Laguntza eskatzeko epea	<p>01/01etik 12/31ra</p> <p>Prestazio hori kobratzeko eskubidea izateko, kausazko egitatea prestazioa indarrean dagoen urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa izan behar da</p>
-------------------------	---

Laguntza onesteko datak	Hilero onesten dira hilabete horretan eskatutako laguntzak.
Laguntza ordaintzeko datak	Prestazioa hurrengo hilaren 10ean ordainduko da, abenduan eskatutako prestazioen kasuan izan ezik, horiek urtarrilaren 31n ordainduko baitira. Ordainketa horiek titularraren kontuan sartu beharreko bankuko transferentzia bidez egingo dira.
Erreklamatzeko epea	Ordainketa egin eta hurrengo 15 egunetan.

5. INFORMAZIOA ETA ESKATZEKO MODUAK

Informazioa bitarteko hauetako edozein baliatuz eska daiteke:

- La Fundacióneko bulegoetan, Dato kaleko 43an.
- 945 222 900 telefono zenbakian.
- info@lafundacion.com helbide elektronikoaren bidez.
- Gainera, laguntza hau eta beste batzuk gure webgunean kontsultatu eta eska daitezke: www.lafundacion.com/eu/.

6. DOKUMENTAZIOA

Prestazioen bidez garatutako jarduerak arautzen dituen prozedura orokorraren eduki osoa aplikatuko da.

1. Eskabidea osorik beteta (La Fundaciónen webgunetik deskarga daiteke, edo bulegoetan bertan eskatu, laguntza aurkeztean).
2. Nordic Klinikak emandako jatorrizko ziurtagiria edo jatorrizko kopia, tratamendua amaitu dela adierazten duena, titularraren edo onuradunaren izenean.
3. Familia-eroldaren ziurtagiri eguneratua eta titularrarekiko mendekotasun ekonomikoaren egiaztagiria (lan-bizitza, pentsioengatiko diru sarreraren egiaztagiria, aurkeztu den PFEZren azken aitortpena), titularrak prestazio hori eskatzen badu honako onuradun hauentzat:
 - gurasoentzat
 - anai-arrebentzat
 - 25 urtetik gorako seme-alabentzat

Oharra: titular bakoitzak urtean gehienez 300€ jaso ahal izango ditu guztira, mendekotasun, hezkuntza eta laneko osasunerako prestazioengatik jasotako zenbatekoak batuta.

La Fundaciónek beretzat gordetzen du egiaztatze beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatzeko eskubidea.